

EUSKARA BATUAREN MERITOAK, DEL BURGO-REN
USTEZ.—Politikoeak aspaldi erakutsi ziguten azalez sendo di-
rela eta kulturaz mehar. Del Burgo-k ordea, azal sendoaz gai-
nera oso gogorra erakutsi digu, Madrid-eko Club Siglo XXI
elkartean otsailaren hasieran «Nuevas ideas» zeritzan hitzal-
diaren bidez. Erdal kazetariak laster aisatu zuten berri hori,
ez ordea bakearen izenean. Baina, idea berririk ba ote da dikta-
dore kasta hortan?

Han agertu zituen ideetako egi bakarra: «Somos una na-
ción y no tan sólo un Estado. Los estados se improvisan,
cambian, e incluso desaparecen. Las naciones permanecen».

Haregatik erabili zuten Cervantes eta B. Gracián-ek «nación vizcaína» eta «nación vascongada». Ikusi besterik ez dugu Co-
rominas-ek zer dakarren, *Nacer* hitza latinetikako *nasci*-tik da-
torrenez zer nolako kontzeptoak hartu dituen.

Arrazoizko zertxo bat egon daiteke beste esaldi hartan ere:
«El nacionalismo vasco ha concedido una tregua a Navarra,
pero ha iniciado una sutil política de filtración cultural, ya
que el *batua* es un instrumento para la creación de la con-
ciencia nacional vasca». Bai, bere oinarrian hori izango zen
Errege Katolikoek asmoa ere Nebrijari gaztelera batuaren erre-
gelak jartzea eskatu ziotenean. Eta, Del Burgo-k, hain nafarza-
le izanik, Nafarroako euskara eta bertako erromanze zaharra
itoarazten dituen hura erabiltzen du. Erromanze zaharra esan
dut? Oraingo nafar erdaldunak erabiltzen dutena bera erabali-
ko baluke ere ez litzake gaizki, «un poquico» balitz ere.

Gure ihardespina honako hau da: euskara batua euskal
abertzaletasunaren kontzientziak itzartzeko bada, Del Burgo
jaunak zergatik ez dio inoiz lagundu Nafarroan «batua» ez den
bertakoari, gaztelarari lagundu dion neurri berean? Aukera ona
izan zuen karguetan zegoelarik. Nafar euskalkientzako lagun-
tza ere oso pozik har genezakean.

Hara hor, igarri gabe, Del Burgo-k nola salatzen duen na-
far jatortasunaren aurkako grina. Bestela, kontuak atera ditza-
la noren morrontzapean dabilen.

J. S. M.